BIZKAIAN TRIBUTU ITUNDUAK DIRELA-ETA BILDUTAKOA

2022KO IRAILA

# I. ZIFRA GLOBALAK

## a) Bildutako zenbateko likido osoa

Irailera arte, tributu itunduak direla-eta bildutako zenbateko metatuak % 11,1ko gorakada izan du, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, eta, guztira, 6.722,1 milioi euro bildu dira; 2021eko hil bererako, berriz, 6.052,1 milioi euro bildu ziren. Horrek diru-bilketa likidoan 670,1 milioiko alde positiboa dakar; gehikuntza hori ekitaldirako aurrekontuaren guztizko kopuruaren (8.386,9 milioi euro) % 80,2 da.

Emaitzak aztertzeko, kontuan hartu behar da bi ekitaldietan egiaztatu den diru-bilketan jasotako kopuruak ez direla homogeneoak; izan ere, osasun-krisialdiak, energiaren prezioek eta inflazioak zergadunengan eragin dituzten likidezia-arazoak arintzeko aurreko ekitaldian zein egungoan hartutako neurriek eragina dute bai tributu-sarreren egutegian, bai, nola ez, bildutako zenbatekoetan.

Irailean ez denez doikuntzarik egiten, abuztuko txostenean adierazitako egoera mantentzen da: barne-doikuntzei dagokienez, Bizkaiak 153,3 milioi gehiago ordaindu dizkie Araba eta Gipuzkoari, hau da % 19,4 gehiago, eta, bestalde, Estatutik jasotako doikuntzak % 38,4 hazi dira.

| IRAILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| mila eurotan | 2022 | 2021 | diferen. | % |
| Diru-bilketa likidoa | 7.222.611,4 | 6.522.099,9 | 700.511,5 | 10,7 |
| FFAAen barneko doikuntza guztira | -943.522,8 | -790.239,2 | -153.283,5 | 19,4 |
| Berezko kudeaketaren tributu itunduak | 6.279.088,6 | 5.731.860,7 | 547.228,0 | 9,5 |
| Guztizko doikuntza Estatuarekin | 443.054,2 | 320.217,5 | 122.836,8 | 38,4 |
| TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA | 6.722.142,9 | 6.052.078,1 | 670.064,7 | 11,1 |
| Gauzatze-ehunekoa | %80,2 | %82,4 | | |

### b) Gestio propioaren ondorioz bildutako zenbateko gordina eta itzulitako kopuruak

Gestio propioko zerga itunduen bidez bildutako kopuru gordina 8.512,4 milioi euro izan da, iaz hil berean lortutakoa baino % 12,1 gehiago; izan ere, orduan 7.594,8 milioi bildu ziren. Bestalde, itzulitako kopuruetan ere gehikuntza gertatu da (% 19,9); iaz 1.862,9 milioi euro itzuli ziren; aurten, berriz, 2.233,4 milioi. Inguruabar bi horien ondorioz, diru-bilketa likidoak % 9,5eko gehikuntza izan du.

| IRAILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA<br>mila eurotan | 2022 | 2021 | diferen. | % |
|---|---|---|---|---|
| Diru-bilketa gordina | 8.512.443,8 | 7.594.767,1 | 917.676,7 | 12,1 |
| Itzulitakoak | -2.233.355,2 | -1.862.906,4 | -370.448,7 | 19,9 |
| Berezko kudeaketaren tributu itunduak | 6.279.088,6 | 5.731.860,7 | 547.228,0 | 9,5 |

## II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko tributuak direla-eta bildutako kopuru likidoak % 10,1eko igoera izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta; aurten 3.246,6 milioi euro bildu dira, eta gorakada izan dute bai diru-bilketa gordinak (% 9,2), bai itzulitako kopuruek (% 3,6). Zeharkako tributuetan, berriz, 2.990,6 milioi euro bildu dira, hau da, % 9,1 gehiago. Igoera bildutako zenbateko gordinean (% 14,5) zein itzulitako kopuruetan (% 25,2) jazo da. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk % 0,9 hazi dira; zehazki, 41,9 milioi euro bildu dira aurten, eta aurreko ekitaldian, berriz, 41,5 milioi.

| IRAILAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA | Diru-bilketa gordina | | | Itzulitakoak | | | Diru-bilketa likidoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| mila eurotan | 2022 | 2021 | diferen. | 2022 | 2021 | % | 2022 | 2021 | % |
| Zuzeneko zergak | 3.721.814,6 | 3.407.424,8 | 9,2 | 475.179,4 | 458.487,5 | 3,6 | 3.246.635,2 | 2.948.937,3 | 10,1 |
| PFEZa | 2.873.506,1 | 2.677.496,3 | 7,3 | 446.590,2 | 430.575,0 | 3,7 | 2.426.915,9 | 2.246.921,3 | 8,0 |
| Sozietateen gaineko zerga | 611.861,5 | 509.084,1 | 20,2 | 14.024,5 | 18.740,9 | -25,2 | 597.837,0 | 490.343,3 | 21,9 |
| Gainerako zuzeneko zergak | 236.447,0 | 220.844,3 | 7,1 | 14.564,8 | 9.171,7 | 58,8 | 221.882,2 | 211.672,7 | 4,8 |
| Zeharkako zergak | 4.746.636,3 | 4.143.969,7 | 14,5 | 1.756.040,5 | 1.402.518,5 | 25,2 | 2.990.595,8 | 2.741.451,2 | 9,1 |
| BEZa | 3.463.591,0 | 2.885.924,0 | 20,0 | 800.301,7 | 608.274,8 | 31,6 | 2.663.289,3 | 2.277.649,2 | 16,9 |
| BEZa barneko doikuntza | | | | 643.532,0 | 490.351,4 | 31,2 | -643.532,0 | -490.351,4 | -31,2 |
| Zerga bereziak | 1.136.407,6 | 1.124.845,6 | 1,0 | 310.864,0 | 303.101,6 | 2,6 | 825.543,7 | 821.744,0 | 0,5 |
| Gainerako zeharkako zergak | 146.637,6 | 133.200,2 | 10,1 | 1.342,8 | 790,8 | 69,8 | 145.294,8 | 132.409,3 | 9,7 |
| Tasak eta Bestelako Sarrerak | 43.993,0 | 43.372,6 | 1,4 | 2.135,3 | 1.900,5 | 12,4 | 41.857,7 | 41.472,2 | 0,9 |
| BEREZKO KUDEAKETA GUZTIRA | 8.512.443,8 | 7.594.767,1 | 12,1 | 2.233.355,2 | 1.862.906,4 | 19,9 | 6.279.088,6 | 5.731.860,7 | 9,5 |
| Doikuntzak Estatuarekin | 700.112,0 | 517.661,9 | 35,2 | 257.057,7 | 197.444,5 | 30,2 | 443.054,2 | 320.217,5 | 38,4 |
| Doikuntzak BEZa | 657.026,2 | 472.967,5 | 38,9 | 10.731,4 | 11.109,6 | -3,4 | 646.294,8 | 461.857,9 | 39,9 |
| Doikuntzak Zerga bereziak | 43.085,8 | 44.694,5 | -3,6 | 246.326,3 | 186.334,9 | 32,2 | -203.240,5 | -141.640,4 | -43,5 |
| TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA | 9.212.555,8 | 8.112.429,0 | 13,6 | 2.490.412,9 | 2.060.350,9 | 20,9 | 6.722.142,9 | 6.052.078,1 | 11,1 |

a) PFEZa

Iazko irailarekin alderatuta, PFEZaren diru-bilketa likidoak % 8,0 egin du gora, bildutako kopuru gordinak % 7,3ko gorakada izan duelako. Era berean, itzulitako kopuruek ere gora egin dute (% 3,7), eta 430,6 milioitik 446,6 milioira pasatu dira.

Zergaren osagai guztiek goranzko bilakaera izan dute; salbuespena izan dira kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak, % 1,0 jaitsi baitira. Hala, gora egin dute lan-etekinen gaineko atxikipenek (% 5,8), higiezinen kapitalaren etekinen gaineko atxikipenek (% 0,6), ondare-irabazien gaineko atxikipenek (% 6,1), lanbide-, enpresa- edo arte-jardueren ordainketa zatikatuek (% 16,1) eta sarien gaineko karga bereziak; azken hori dela-eta aurten bildutako zenbatekoa (23,0 milioi) eta aurreko ekitaldikoa (6,8 milioi) oso bestelakoak dira. Kuota diferentzialaren emaitza negatiboa txikiagoa da (-111,2 milioi euro, aurreko urteko -138,6 milioien aldean), diru-bilketa gordinaren hazkunde handia dela eta (% 12,0); itzulketetan hazkundea ez da hain handia izan (% 1,6).

b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen kuota diferentziala % 30,6 hazi da, bildutako zenbateko gordina hazi egin delako (%27,7); 468,4 milioi bildu dira, aurreko urteko 366,6 milioien aldean. Itzulketen bolumena, 13,0 milioi, % 27,3 jaitsi da. Aurreko epigrafean aipatu diren gainerako zergak kontuan hartuta, zergaren zioz bildutakoa % 21,9gehitu da; izan ere, 2021eko irailera arte lortutakoa 490,3 milioi izan zen, eta ekitaldi honetan bildutakoa, berriz, 597,8 milioi izan da.

c) Gainerako zuzeneko zergak

Gainerako zuzeneko zergetan bildu den kopuru likidoa % 4,8 handitu da; pasa den urteko irailera arte, 211,7 milioi bildu ziren, eta aurten, berriz, 221,9 milioi. Jaitsiera egon da ondarearen gaineko zergan (-% 2,1) eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan (-% 20,3), eta igoera, aldiz, kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergan (% 4,7) eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan (duela urtebete 34,8 milioi bildu ziren eta aurten 73,2 milioi). Bestalde, nabarmentzekoa da energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zergan egondako jaitsiera (-% 99,5), zerga eteteak (elektrizitatearen prezioaren hazkunde geldiezina arintzeko neurria) eragindakoa.

d) BEZa

BEZari dagokionez, % 16,9 gehiago bildu da: iaz 2.277,6 milioi euro bildu ziren, eta aurtengo ekitaldian 2.663,3 milioi bildu dira. Bilakaera positibo hori bildutako kopuru gordinean izandako % 20,0ko gorakadaren ondorioa da. Izan ere, 2.885,9 milioi biltzetik 3.463,6 milioi biltzera pasatu da. Era berean, itzulketek % 31,6 egin dute gora. Bestalde, tributu hori dela-eta egindako barne-doikuntzaren ondoriozko ordainketak % 31,2 hazi dira; guztira, 643,5 milioi euro ordaindu dira. Arabak 205,5 milioi jaso ditu (% 51,8 gehiago) doikuntza horretan, eta Gipuzkoak, berriz, 438,0 milioi (% 23,4 gehiago).

## e) Zerga bereziak

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 0,5 egin du gora zerga berezien diru-bilketak; bildutako zenbateko gordina gehitu da (% 1,0) eta itzulitako kopuruak ere bai (% 2,6). Bilketak igo egin dira zerga hauetan: hidrokarburoak (% 0,2), tabako-laboreak (% 17,2) eta garagardoa (% 97,7). Aldiz, jaitsi egin dira beste hauetan: alkoholak (-% 17,6) eta elektrizitatea (-% 67,9). Emaitza horietan eragin handia dute zerga horien barne-doikuntzek. Kontzeptu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak 300,0 milioi euro ordaindu dizkie Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei (% 0,6ko igoera); lehenengoak 68,6 milioi euro jaso ditu (% 7,0 gutxiago) eta bigarrenak 231,4 milioi (% 3,1 gehiago).

## f) Gainerako zeharkako zergak

Gainerako zeharkako zergen kasuan, % 9,7ko igoera izan da, guztira. Zehazki, bilketak gora egin du honako zerga hauetan: ondare-eskualdaketen gaineko zerga (% 4,9), egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (% 28,2), zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia (% 14,3), berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga (% 16,5) eta aseguru-primen gaineko zerga (% 9,3). Joko-jardueren gaineko zergan, aldiz, behera egin du (-% 45,4).

## g) Tasak eta beste sarrera batzuk

Tasen eta beste sarrera batzuen zioz bildutakoak % 0,9ko igoera izan du; 41,5 milioi eurotik ekitaldi honetan bildutako 41,9 milioi eurora igo da. Jokoaren gaineko tasek % 56,2ko gehikuntza izan dute, makinen eta tresna automatikoen tasak (% 58,6; 8,4 milioitik 13,3 milioira igaro da) eta bingo-jokoaren (0,7 milioi eurotik 1,6 milioi eurora) eta txartel eta beste apustu batzuen tasek (% 24,2) izan duten igoeraren eraginez. III. kapituluko gainerako kontzeptuetan, behera egin dute berandutze-interesek (-% 28,0), premiamendu-errekarguek (-% 14,8) eta zerga-zehapenek (-% 17,2).

## h) Estatuarekiko doikuntzak

Irailean ez da transferentziarik egin Estatuarekiko doikuntzak direla-eta; horrela, bada, haien emaitza (uztaileko txostenean jasoa eta ekitaldiko lehen bi hiruhilekoetako bilketa-doikuntzei eta aurreko ekitaldiko likidazioari dagokiena) txosten horretan adierazita dagoen moduan mantentzen da.

**TRIBUTU ITUNDUEN BILDUTAKOA.** Aurreko ekitaldiarekiko alder.
**RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS.** Comparación ej. anterior

# 2022

Aldiak: urtarrila-iraila
Periodos: enero-septiembre

| Deskribapena *Descripción* | Bilketa Garbia *Recaudación Neta* 2022 | 2021 | Diferentzia *Diferencia* | Gehik *%Incr* | Bilk.Aurrek *Pto.Recaud.* | Bet.% *%Ejec* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / *RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO* | 2.317.091.410 | 2.189.332.733 | 127.758.677 | 5,8 | 3.020.000.000 | 76,7 |
| ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / *RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO* | 83.101.837 | 83.926.818 | -824.982 | -1,0 | 88.000.000 | 94,4 |
| ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / *RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO* | 32.566.915 | 32.385.462 | 181.454 | 0,6 | 48.000.000 | 67,8 |
| ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / *RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES* | 26.766.882 | 25.221.125 | 1.545.758 | 6,1 | 32.000.000 | 83,6 |
| SARIEN GAINEKO KARGA BEREZIA / *GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS* | 23.018.120 | 6.800.944 | 16.217.176 | 238,5 | 25.000.000 | 92,1 |
| LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / *FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS* | 55.537.878 | 47.849.435 | 7.688.443 | 16,1 | 80.000.000 | 69,4 |
| PFEZ KUOTA DIFERENTZIAL / *CUOTA DIFERENCIAL IRPF* | -111.167.122 | -138.595.173 | 27.428.052 | 19,8 | -11.000.000 | * |
| **PFEZ GUZTIRA / *TOTAL I.R.P.F.*** | **2.426.915.921** | **2.246.921.343** | **179.994.578** | **8,0** | **3.282.000.000** | **73,9** |
| ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / *RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO* | 83.101.802 | 83.926.781 | -824.979 | -1,0 | 88.000.000 | 94,4 |
| ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / *RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO* | 32.566.656 | 32.385.178 | 181.478 | 0,6 | 48.000.000 | 67,8 |
| ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / *RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES* | 26.766.878 | 25.221.121 | 1.545.757 | 6,1 | 32.000.000 | 83,6 |
| SOZIETATEAK KUOTA DIFERENTZIALA / *CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES* | 455.401.667 | 348.810.189 | 106.591.477 | 30,6 | 451.000.000 | 101,0 |
| **SOZIETATEAK GUZTIRA / *TOTAL SOCIEDADES*** | **597.837.003** | **490.343.269** | **107.493.734** | **21,9** | **619.000.000** | **96,6** |
| EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN G/Z / *IMPUESTO S/RENTA NO RESIDENTES* | 73.181.456 | 34.764.358 | 38.417.098 | 110,5 | 24.300.000 | 301,2 |
| OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN G/Z / *IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES* | 54.632.661 | 68.528.059 | -13.895.397 | -20,3 | 86.400.000 | 63,2 |
| ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / *IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO* | 78.518.673 | 80.223.162 | -1.704.489 | -2,1 | 82.000.000 | 95,8 |
| KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN G/Z / *IMPTO.S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO* | 15.483.733 | 14.782.528 | 701.205 | 4,7 | 17.300.000 | 89,5 |
| ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN G/Z / *IMPTO S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA* | 65.704 | 13.374.576 | -13.308.872 | -99,5 | 20.000.000 | 0,3 |
| IRAUNGITAKO ZUZENEKO ZERGAK / *IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS* | | | | | | |
| **BESTELAKO ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / *TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS*** | **221.882.226** | **211.672.681** | **10.209.545** | **4,8** | **230.000.000** | **96,5** |
| **ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / *TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS*** | **3.246.635.150** | **2.948.937.293** | **297.697.857** | **10,1** | **4.131.000.000** | **78,6** |
| BEZ: KUDEAKETA PROPIOA / *IVA GESTIÓN PROPIA* | 2.663.289.307 | 2.277.649.249 | 385.640.058 | 16,9 | 2.069.013.400 | 128,7 |
| EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / *IVA AJUSTE LEY APORTACIONES* | -643.532.003 | -490.351.356 | -153.180.647 | -31,2 | | * |
| ONDARE ESKUALDAKETEN G/Z / *IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES* | 65.147.190 | 62.120.290 | 3.026.900 | 4,9 | 92.000.000 | 70,8 |
| EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN G/Z / *IMPTO. ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS* | 18.711.333 | 14.599.079 | 4.112.254 | 28,2 | 19.500.000 | 96,0 |
| GARRAIOBIDE JAKIN BATZUEN G/Z / *IMPTO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE* | 9.460.774 | 8.273.524 | 1.187.249 | 14,3 | 12.000.000 | 78,8 |
| ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIOA / *IMPTOS. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA* | | | | | | |
| ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / *ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS* | 908.773 | 1.102.693 | -193.920 | -17,6 | 1.873.963 | 48,5 |
| TARTEKO EKOIZKINAK / *PRODUCTOS INTERMEDIOS* | 47.321 | 40.213 | 7.108 | 17,7 | 141.637 | 33,4 |
| HIDROKARBUROAK / *HIDROCARBUROS* | | | | | | |
| Barne eragiketak(tasa autonomikoa salbu) / *Op. interiores(excl.Tipo autonómico)* | 702.123.074 | 700.728.304 | 1.394.770 | 0,2 | 793.642.500 | 88,5 |
| Tasa autonomikoa / *Tipo autonómico* | -18 | -4.146 | 4.127 | 99,6 | | * |
| TABAKO LANAK / *LABORES DE TABACO* | 114.874.123 | 98.027.996 | 16.846.127 | 17,2 | 171.326.000 | 67,1 |
| GARAGARDOA / *CERVEZA* | 664.437 | 336.002 | 328.435 | 97,7 | 1.007.800 | 65,9 |
| ELEKTRIZITATEA / *ELECTRICIDAD* | 6.927.329 | 21.553.420 | -14.626.091 | -67,9 | 24.691.100 | 28,1 |
| HIDROKARBUROEN TXIKIZKAKO SALMENTEN G/Z / *IMPTO.S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS* | -1.365 | -40.486 | 39.121 | 96,6 | | * |
| ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / *IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS* | 47.558.634 | 43.523.075 | 4.035.559 | 9,3 | 52.000.000 | 91,5 |
| JOKU JARDUERAREN GAINEKO ZERGA / *IMPTO.S/ ACTIVIDADES DE JUEGO* | 1.505.910 | 2.760.546 | -1.254.637 | -45,4 | 4.500.000 | 33,5 |
| BEROTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORADUNEN G/Z / *IMPTO.S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO* | 1.319.371 | 1.132.800 | 186.570 | 16,5 | 1.300.000 | 101,5 |
| FINANTZA-TRANSAKZIOEN G/Z / *IMPTO S/TRANSACCIONES FINANCIERAS* | | | | | 80.624.000 | |
| ZENBAIT ZERBITZU DIGITALEN G/Z / *IMPTO S/DETERMINADOS SERVICIOS DIGITALES* | 1.591.618 | | 1.591.618 | | 7.900.000 | 20,1 |
| IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / *IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS* | | | | | | |
| **ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / *TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS*** | **2.990.595.806** | **2.741.451.204** | **249.144.602** | **9,1** | **3.331.520.400** | **89,8** |
| BINGOA / *BINGO* | 1.632.443 | 748.560 | 883.883 | 118,1 | 1.200.000 | 136,0 |
| MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / *MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS* | 13.269.777 | 8.366.387 | 4.903.390 | 58,6 | 20.000.000 | 66,3 |
| TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / *BOLETOS Y OTRAS APUESTAS* | 2.576.929 | 2.074.717 | 502.212 | 24,2 | 3.200.000 | 80,5 |
| **JOKO-TASAK GUZTIRA / *TOTAL TASAS DE JUEGO*** | **17.479.149** | **11.189.664** | **6.289.486** | **56,2** | **24.400.000** | **71,6** |
| PREMIAMENDU ERREKARGUA / *RECARGOS DE APREMIO* | 6.669.529 | 9.267.829 | -2.598.301 | -28,0 | 12.000.000 | 55,6 |
| BERANDUTZA KORRITUAK / *INTERESES DE DEMORA* | 10.739.444 | 12.601.202 | -1.861.758 | -14,8 | 17.300.000 | 62,1 |
| ZEHAPENAK / *SANCIONES* | 6.969.569 | 8.413.471 | -1.443.902 | -17,2 | 13.000.000 | 53,6 |
| **TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / *TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS*** | **41.857.690** | **41.472.166** | **385.524** | **0,9** | **66.700.000** | **62,8** |
| **ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / *TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO*** | **6.279.088.646** | **5.731.860.663** | **547.227.983** | **9,5** | **7.529.220.400** | **83,4** |
| BEZ INPORTAZIOAK / *IVA IMPORTACIONES* | 460.907.609 | 318.283.952 | 142.623.658 | 44,8 | 685.304.000 | 67,3 |
| BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / *IVA OPERACIONES INTERIORES* | 185.387.149 | 143.573.918 | 41.813.231 | 29,1 | 372.886.000 | 49,7 |
| **BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / *TOTAL AJUSTES I.V.A.*** | **646.294.758** | **461.857.870** | **184.436.888** | **39,9** | **1.058.190.000** | **61,1** |
| ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN G/Z.B. DOIKUNTZAK / *AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS* | | | | | | |
| INPORTAZIOAK / *IMPORTACIONES* | 66.479 | 25.478 | 41.001 | 160,9 | 95.741 | 69,4 |
| BARRUKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES INTERIORES* | 19.450.524 | 19.677.943 | -227.420 | -1,2 | 23.179.400 | 83,9 |
| HIDROKARBUREN G/Z.B.DOIKUNTZA / *AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS* | | | | | | |
| INPORTAZIOAK / *IMPORTACIONES* | 55.197 | 50.228 | 4.969 | 9,9 | 10.078 | 547,7 |
| BARRUKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES INTERIORES* | -241.791.408 | -179.959.542 | -61.831.865 | -34,4 | -250.438.300 | * |
| TASA AUTONOMIKOA / *TIPO AUTONÓMICO* | 18 | 3.379 | -3.361 | -99,5 | | |
| TABAKO LANEN G/Z.B. DOIKUNTZAK / *AJUSTES IMP. S/ LABORES DE TABACO* | | | | | | |
| BARRUKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES INTERIORES* | 9.577.228 | 10.044.485 | -467.258 | -4,7 | 15.620.900 | 61,3 |
| GAGARDOAREN G/Z.B. DOIKUNTZAK / *AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA* | | | | | | |
| INPORTAZIOAK / *IMPORTACIONES* | 36.002 | 25.933 | 10.069 | 38,8 | 131.014 | 27,5 |
| BARRUKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES INTERIORES* | 9.365.439 | 8.491.702 | 873.737 | 10,3 | 10.884.240 | 86,0 |
| **ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / *TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES*** | **-203.240.521** | **-141.640.394** | **-61.600.127** | **-43,5** | **-200.516.927** | * |
| **ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / *TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS*** | **6.722.142.884** | **6.052.078.139** | **670.064.744** | **11,1** | **8.386.893.473** | **80,2** |

* *Garrantzi txikiko ratioa* / *Ratio no significativo*